


ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2026ko maiatzak 22 · 1397 zenbakia

MUSIKAZ MAITEMINDUTA



URRATEGI

INTERIORISMO
barne diseinua

dena
sukaldean
hasten da





**NIREKIN
HASI
EUSKARAZ**



**EUSKARAZ
HASTEN DIRA
GAUZA ONAK**



**HASI
ZUK
ALDAKETA**



**EUSKARA
ERABILTZEA,
GUZION
KONTUA**

Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



www.etakitto.eu



Eibarren euskararen ezagutza handitu bada ere, kale-erabilerak beherantz egiten jarraitzen du: %24tik %13ra jaitsi da azken hamarkadan. Arkaitz Uranga AKEBAko koordinatzailearen ustez, "estres linguistikoa", hizkuntza inertiak eta euskaltzaleen nekea dira erronka handienetako batzuk.

eta kitto!
eusgara elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruene Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruene Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Joseba Tapia

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Zenbat kostatu da?

"No al paseo que nos entierra - ekialdea bai" auzo-elkar-teak Eibarko alkate den Jon Iraolari hauxe eskatu diogu: azken zifrak izan bezain laster, osoko bilkura batean kontu publikoa eman dezala, Estaziño-Azitain paseoa zenbat diru erabili den jakin ahal izateko.

Auzo-elkar-teak bildutako datuen arabera, obra 2022ko irailean esleitu zen, 14.549.297,95 euroko hasierako aurrekontuarekin, BEZik gabe. Ondoren, hiru aurrekon-tu-aldaketa izan zituen proiektuak, eta fakturaren kostua 25.038.806,28 eurora igo zen, BEZa barne.

Igoera 7.433.246 eurokoa izan da -BEZa barne-, hau da, hasierako esleipenaren kostuaren % 42,2 gehiago fakturan.

Gogorazi nahi dugu ETS proiektua gauzatzen ari dela Eibarko Udalaren laguntzarekin, eta obra oraindik ez dela amaitu, paseoa inauguratu bada ere; eta azken datuak eza-gutu gabe ere, zentzugabekeri ekonomiko itzela iruditzen zaigula.

Era berean, bizilagunok azalpenak eskatu nahi dizki-zuegu udalak eta ETSk pasealekuan paisaia eta inguru-menean integratzeko egin berri duten akordioari buruz. Akordio horren zenbatekoa 680.000 eurotik gorakoa da, BEZik gabe.

Gainera, esku-hartzearen azken gastuaren banakapen zehatua eskatzen dugu, honako hauek zehaztuta:

- * Europako erakundeek emandako zenbatekoa.
- * Eusko Jaurlaritzak (ETS) emandako zenbatekoa.
- * Eibarko Udalak emandako zenbatekoa.

* Estaziño eta Azitain artean garatutako proiektu osoa-ren behin betiko kostu zehatza.

Gure ustez, horrela, Eibarko herritarrek modu zehatz, zuzen eta gardenean ezagutu eta ebaluatu ahal izango luke-te jarduera honetan gastatutako dirua. Gure ustez, gainera, auzotarrek egindako eskaera zentzuzkoa eta bidezkoa da.

**"No al paseo que nos entierra-Ekialdea bai"
auzo elkarte**

Hortik esanak



Zapalkuntzaren hiztegia

Markina-Xemeingo Dibertimendua bikainaren ondotik, lagun batek tabernan erran zidan haren ustez, euskararena zapalkuntzen artean azken kezka bilakatu zela. Ardo pare baten ondotik, proposamena luzatu zidan: zapalkuntza isilaren hiztegia zabaldu behar genuke, feminismoak garatu duenaren antzekoa. Hordagoari eutsiz, horra nire ekarpena:

Euskarafobia: euskara entzute hutsak hotzikarak eta jarrera erasokorrek eragiten dizkion pertsona. Korrikan parte hartzeko ezintasunaz sufritzen du. Azaleko azkura eta begietako gorritasuna agertzen zaizkio euskara eskakizunei buruz hitz egiten entzute hutsarekin; nahasmena eragiten dio eta apartheid, intolerantzia, ghetto, jazarpena edo bazterkeria hitzak kontra zentzuan frenetikoki erabiltzen hasten da.

Basque washing: euskararekiko alegiazko maitasun praktika, aldeko neurri eraginkorrek irmoki saihestuta. Etorkizun oparo baten promesa etengabe baliatuz, orainaldiko larrialdiari bizkarra emateko joera.

Euskaragorra: entzumen selektiboaz sufritzen duen euskal herritarra. Keinu nabarmenen laguntzaz errandako "bi kafe plazer baduzu" esaldi xumeari "je ne comprends pas" edo "no entiendo vasco" erantzuten diona. Nazioarte-kotu lezake gaitza "can i help you?" esanez, ulermenetik at euskara bera saihesteko bidea normalizatuta.

Euskaritsua: hautuzko ezjakintasunak bultzaturik, euskal ekimenez batere jakitun ez dena, izan hizkuntza nola kultura. Euskaritsuak, bera mundutarra denez, euskalduna-kan itxiak eta lokalak direla uste du.

Xuri ona: euskarafobia aktibo-pasiboa praktikatzen du-ten egituretan euskara kupoa betetzen duen domestikatu. Bere irudi publikoa zaintzen du anitz (salbatzailatzat jotzen du haren burua). Haren eginkizuna: frogatzea, euskalduna izan arren, ez dela besteak bezalako euskalduna, besteak bezain beltza. Ez du sistemaren beraren oinarria zalantzan jartzen. Bere erosotasun ekonomikoa euskararen zapalkun-tzaren aliatu isila bihurtu da.

Ximun Fuchs (ARGIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POTEKA. → Harrapatzeko jolas bat: harri xehez betetako pote bat erabiltzen da. Ostikada ematen zaio eta gatibu geratzen dena bila don bitartean, besteak ihes egin eta ezkutatu egiten dira. "Guk egitten genduan: panaderixia badago, Isasikua, han goixan... "Don-don Beledon" egin. Neri tokatzen bajatan, hartu potia ta bota beheraiño; orduan ni billa. Ni billa noian artian, bestiak ezkutau. Gero nik hartu potia ta nere lekura noian, baiña harek topau egin bihar nittuan... Bittartian beste batek urten eta potia hartzen baestan, ba, barriro neu katibu. Neuk harrapatzen banittuan, harrapatzen nebana ha gelditzen zan potiakin. Poteka zan hori".

1954

Aginagako elizako kanpandorre berriaren inaugurazioa

Eibarko Aginaga auzoko elizako dorre berriaren inaugurazio eguneko irudi honetan hiru buruhaundi ageri dira, txistu eta danbolinarekin. Dorrea ger-raostean eraiki zen, Espainiako Gerra Zibilaren ondoren.
INDALECIO OJANGUREN



Farmaziak

BARIXAKUA 22
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 24
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
ASTELEHENA 25
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 26
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 27
EGUNEZ Azkue (J. Etxeberria, 4)
EGUENA 28
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 29
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **M^a Angeles Pontones Lopez**. 81 urte. 2026-05-14.
- **Felix Morcillo Nuñez**. 80 urte. 2026-05-16.
- **M^a Pilar Torre Matanza**. 92 urte. 2026-05-17.
- **Valentin Martinez Garcia "Txintxo"**. 67 urte. 2026-05-18.
- **Serafin Martinez Abad "El tapicero"**. 93 urte. 2026-05-19.
- **Alberto Lasuen Arriaga**. 84 urte. 2026-05-19.



Etxebizitzaren arazoaren aurrean epe laburreko neurriak behar direla dio Bilduk

S.H. Eibarrek etxebizitza egoera larriaren aurrean epe laburreko neurriak behar dituela dio Eibar-ko EH Bilduk. Hala adierazi dute koaliziotik, Eibarko Udalak aste honetan esandakoaren harira. Izan ere, Udalak astelehenean esan zuen etxebizitza politiketan urrats berria eman duela, udal-diagnostiko tekniko berriak 5. barrutia ere bizitegi-eremu tentsionatu gisa aztertzea proposatu ostean. Etxebizitzaren arazoa herritarren kezka nagusietako bat izanik, etxebizitza politika urte luzez merkatuaren esku utzi izana kritikatu du Bilduk. Bere iritziz, administrazio publikoek, Udalak bereziki, paper aktiboagoa jokatzea behar du, etxebizitza eskubidea bermatzeko. Gauzak horrela, epe luzeko zein epe motzeko neurriak behar direla diote.

Epe luzera begira, PSE-EErekin adostutako hainbat egitasmo nabarmendu dituzte. Horien artean daude Barrena 34n, Lapeiran, egingo diren 20 etxebizitzak eta Txonta zein Errekatxurako HAPOaren aldaketa. Azken proiektu horrek 466 etxebizitza berri aurreikusten ditu: Txontan 436 etxebizitza erai-

kiko lirateke —229 libre, 8 tasatu, eta 199 babes ofizialekoak— eta Errekatxun beste 30, horietatik 15 babes sozialekoak. Hala ere, EH Bildutik diotenez, urteak beharko dira proiektu horiek gauzatzeko, eta herritar askok premiazko irtenbideak behar dituzte. Gaur egun, Eibarren 1.358 elkarbizitza-unitatek etxebizitza babestua eskatzen dute, horietatik 1.212k alokairuan. Aldi berean, etxebizitza hutsen kopurua handia dela azpimarratu dute: 1.018 eta 1.869 artean, iturriaren arabera.

Epe motzeko neurri gisa, Ego Gainen amaitzearen diren alokairuko 36 etxebizitza babestuak eta Bittor Sarasketako gazteentzako 19 apartamentuak aipatu dituzte. Horrez gain, EH Bilduk defendatu du 1. eta 5. barrutiak eremu tentsionatu izendatzeko eskaera herri osora zabaltzea.

Koalizioak bereziki kritikatu du 2022an PSE-EErekin adostutako etxebizitza hutsen gaineko kanona oraindik aplikatu ez izana. Azpeitin kanona ezarri eta urtebetera etxebizitza hutsen %11 mobilizatzea lortu dutela gaineratuta.

Sanjuanetan txosna ipintzeko eskaerak maiatzaren 27ra arte aurkeztu daitezke

S.H. Eibarko Udalak jakinarazi duenez, 2026ko San Juan Jaietan txosnak jartzeko eskaerak aurkezteko epea zabalik dago: “Eskabi-deak erreferentziako dokumentuan adierazitakoaren arabera aurkeztu beharko dira”. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 27an, eguaztenean amaituko da. Informazio guztia kontsultatzeko, Eibarko Udalaren webgunean begiratu.



Estaziño-Azitain pasealekua birnaturalizatzeko hitzarmena abian

S.H. Eibarko Udalak eta Euskal Trenbide Sareak (ETS) espazio hori birnaturalizatzeko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Akordioaren bidez, Bilbo-Donostia trenbidearen linearen zati estalian ingurunea zaharberritu eta egokitzeko lanak egingo dira, eremu “herritarrentzat atseginagoa, jasangarriagoa eta irisgarriagoa” izan dadin. Horretarako, landaredia, itzal-eremuak eta ingurumen-eta paisaia-kalitatea hobetuko duten elementuak jarriko dira. Lanek 687.531 euroko aurrekontua eta bost asteko iraupena izango dute.



Eibarko Gaztetxia hustutzera joan ziren atzo ertzainak, "epaitegiaren aginduz"

S.H. Eibarko epaitegiak eraikinarren hustuketa agindua eman duela esanez, atzo goizean Ertzaintzaren hainbat patruila Iparragirre kalera joan ziren, Eibarko Gaztetxia hustutzeko agindua betearaztera. Horren berri izan eta berehala, Gaztetxe-ko asanbladako kideak bertaratu eta gertatzen ari zenari buruzko azalpenak eskatu zituzten, baina ez zuten lortu inork ezer argitzea. Operatiboaren arduradun batekin berbetan aritu ostean, lau lagun berrira sartzeko baimena eman zieten, barrutik gauzak (musika

ekipoak, edariak...) atera ahal izateko. Bitartean, bi sarreretako bat adreiluz ixten ari ziren. Abokatu bezala identifikatu zen pertsona batek ere kaleratze agindua erakusteko eskatu zuen, baina hari ere ez zioten erakutsi: "Prozedura judizialaren zentzua lortu dugu, gerora norbait epaitegira joan eta prozedura osoa nola izan den ikusteko. Epaitegiko langileak esan digunez, berez abisuak egon dira, baina ez dakigu zenbat, ez dakigu noiz... Eta gaztetxetik diote inork ez dituela abisu horiek hartu".

Maiatzaren 28an hasiko dira Gazte Eguneko bazkarirako txartelak saltzen

S.H. Sanjuanak geroz eta gertuago daude, eta Jaixak Herrixak Herri-xandako jai-batzordeak, aurten ere, herri-bazkaria antolatu du Gazte Egunerako, ekainaren 23rako. Jakinarazi dutenez, datorren asteko egunean, maiatzaren 28an hasiko dira bazkarira joan nahi dutenentzat txartelak saltzen, Untzaga plazan (harmailen aldean), 19:00etan. Tiketak 15 eurotan salduko dituzte eta, txartel bakoitzak, bazkarira joateko eta Gazte Eguneko kamiseteta lortzeko balio du.



5. Martxan

minbiziaren aurka Eibarren

Nobedadea: 5 km korrika

Eibar. Untzaga plaza

10:40h Korrika - 5 km 11:00h Markea - 3,3 km

Informazio gehiago: [94345 099 8888](tel:9434509888)

ekainak **6**

Inskripzioak:



Salmenta puntuak:

Untzaga Guztan Eliza Elkartea / Auzolanean Elkartea Behoko Tokia / Armañak eta Carta Vecchia
Litu jabilariaren etxea / Tokimika zerbitzu soziala / Ispasa jabilariaren etxea. Minbiziaren Aurka Eibarren enpatia Ordezkatzailea

Zilarreko babesleak:



Brontzeako babesleak:



Laguntzaileak:





"Martxan Minbiziaren Aurka"-ren 5. edizioa egingo da ekainaren 6an

S.H. Ekainaren 6an, zapatua, Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarateak antolatutako Martxan Minbiziaren Aurka ekimenaren 5. edizioa hartuko dute Eibarko kaleek. Ekimenak milaka lagun bildu ohi ditu eta aurten ere hala izatea espero dute antolatzaileek. Hiru kilometroko martxa 10:40an hasiko da, Untzagan, eta amaiera leku berean izango da. Bi modalitate daude aukeran: Korrika (5 kilometroko ibilbidea); eta Martxa (3 kilometrokoa). Izen-

emateak 10 euro balio du, eta horretarako epea ekainaren 4an itxiko da. Izen-ematea online egin daiteke edo, bestela, aurrez aurreko puntuak ere gaitu dituzte Eibarren (jubilatuetxeetan eta Amaña es la Caña kioskoan. Horrez gain, bihar (maiatzak 23) eta maiatzaren 30ean Untzagan stand informatiboa ipiniko dute.

Informazio gehiago behar izanez gero, antolatzaileek 635 039 888 telefono-zenbakia jarri dute herritarren eskura.

Bizitza osoa txirrindularitzari eman dion Alberto Lasuen hil egin da

S.H. Bizitza osoa txirrindularitzari lotuta eman duen Alberto Lasuen Arriaga martitzenean (maiatzak 19) hil zen, 84 urterekin. Profesional mailara heldu diren txirrindulari askoren entrenatzaile izan zenak aitortza bat baino gehiago jaso du azken urteotan: iaz lehen aldiz Erman ospatutako Kirolaren Galan, 'Balioak Kirolean' saria eman zioten Ermuko Txirrindulari Elkartearen presidente-ohiari; eta

2024ko Txistorra Egunean, Eibar-ko Txirrindulari Elkarateak omendu zuen. Bere heriotza dela eta, Iñaki Osoro Eibarko Klub Deportiboko presidenteak honakoa adierazi du, Klubaren izenean: "Itzalean egin zuen lan eskergari esker proiektu asko burutu dira. Bizi guztian txirrindularitzaren alde jardun zuen lanean, borondate hutsez, beti laguntzeko prest, umil eta zintzo". Goian bego.



Euskal Herria - Guatemala Eskola Politiko Feministen I. Topaketa Eibarren

S.H. Ekainaren 6an egingo da Euskal Herria - Guatemala Eskola Politiko Feministen I. Topaketa, Eibarren, 11:00etatik 15:00etara. Eibar-Ermuko Talde Motorrak eta Entreamigos-Lagun Artean elkarateak antolatu dute jardunaldia eta, azaldu dutenez, "topaketa hau bost urte baino gehiagotan Eskola Politiko Feministetako hainbat eragilerekin batera egindako lankidetzaz-prozesuaren emaitza da, eta kulturarteko trukea, hausnarketa eta elkarrizketa kolektiboa sustatzeko espazio bat sortzea du helburu. Bertan izango dira Guatemalako emakume liderrak eta giza eskubideen defendatzaileak, baita Euskal Herriko hainbat kolektibotako kideak ere. Jardunaldian zehar, prestakuntza politiko feministaren garrantzia landuko dugu ikuspegi antirrazista, kritiko eta dekolonialetatik; aldi berean, zaintzak, poza eta eraikuntza kolektiboa erdigunean jarri. Mahai inguruaz gain, esku-hartze artistikoak, informazio guneak, artisau azoka txikia, kalejira eta herri bazkaria ere izango dira". Datozen egunetan antolatutako jarduera ezberdinei buruzko informazio gehiago partekatuko dute.



Bidezko Merkataritzaren Azoka bihar Eibarko Bizikleta Plazan

S.H. Egoaizia, Aldatze, La Salle eta Proyde-Proega GGKEek antolatuta, Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguneko azoka egingo da bihar zapatua (hilak 23), Eibarko Bizikleta Plazan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 10:00etatik 14:00etara adin-tarte guztieki zuzendutako proposamena eskainiko da, *Etorkizun jasangarria kontsumo arduratsuarekin* goiburuari jarraituta. Azokak kontsumo ohiturei

eta horiek ingurumenean dituzten ondorioei buruzko hausnarketa sustatuko du, jarduera ludikoen eta hezkuntza materialen bidez, praktika kontzienteeagoak berreskuratzearen garrantzia azpimarratuz.

Goizean zehar honako jarduerak egongo dira, besteak beste: hauterantzako gunea (jolasak, eskulanak eta puzzle erraldoia); Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta postua, elikagaiak erosteko auke-

rarekin; Bidezko Merkataritzako produktuen dastaketa, “zaporeak ezagutzeko, eta ekoizpen-baldintza duinak ulertzeko”; Bidezko Merkataritzako produktuekin osatutako saskien zozketa, azokara hurbiltzen diren guztientzat; eta tokiko ekimenen presentzia, hala nola Eibar Eraldatuz, “ingurunea modu kolektiboan eraldatzeko asmoz”. Proiektuak Eibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa du, eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete Bidezko Merkataritza eta kontsumo arduratsua herritarrengana hurbiltzen laguntzen duten erakundeei.

errenta
aitorpena?
euskaraz!

zelan?

- autolikidazioan

euskaraz egin nahi duzula esan


- mekanizatuan

ordua hartzerakoan, eta aitortpena egiterakoan, euskaraz egin nahi duzula esan

- internet bidez

errenta programaren euskarazko bertsioa deskargatu





Eibarren euskararen kale-erabilera behera: %24tik %13ra azken bi hamarkadetan

Eibarren euskararen ezagutza handitu bada ere, kale-erabilerak beherantz egiten jarraitzen du: %24tik %13ra jaitsi da azken hamarkadan. AKEBAIk egindako diagnosiak agerian utzi du aisialdia, gazteak eta familia-transmisioa direla kezka nagusiak. Arkaitz Uranga AKEBAIko koordinatzailearen ustez, “estres linguistikoa”, hizkuntza inertiak eta euskaltzaleen nekea dira erronka handienetako batzuk.

Eibarren euskararen egoerak paradoxaren itxura hartu du azken urteotan: gero eta herritar gehiagok dakite euskaraz, baina kalean gero eta gutxiago erabiltzen da. Horixe da AKEBAIk eta Ahize-AEK-k osatutako Eibarko Euskararen Diagnostikoa 2025 txostenak utzi duen ondorio nagusietako bat. 2016tik 2025era arte indarrean egon den plan estrategikoaren balorazioa egin du plataformak, eta herritarren, teknikarien eta eragileen iritziak bildu ostean, euskararen normalizazioaren erronka nagusiak identifikatu ditu.

Arkaitz Uranga AKEBAIko koordinatzaile eta idazkariaren esanetan, plan berri bat diseinatu aurretik ezinbestekoa zen herriaren egoera eta pertzepzioak aztertzea. “2025aren batera amaitu da aurreko planaren agintaldia, eta aurrera begira herritarren pertzepzioak entzun nahi genituen, guk geuk ere jakiteko zein abiapuntu dugun”, azaldu du.

Diagnosiak erakusten du Eibarren euskararen ezagutza handia dela gaur egun. Herritarren %72 “euskalduna edo ia-euskalduna” da. Hala ere, kale-erabilerak beherantzko

joerari eutsi dio: 2016an %15,1ekoa zen, eta 2021ean %13ra jaitsi zen. Bilakaera historikoa are adierazgarriagoa da: 2006-2010 aldian erabilera %24,5 inguruan zegoen.

Urangaren ustez, arrakala hori ezin da ezagutza datuekin soilik azaldu. “Erosotasunak, ohiturek, hiriko egoera soziolinguistikoak edo kalean arnasten den giroak eragin handia dute”, dio. Diagnosiak ere antzeko ondorioa jaso du: euskaraz dakiten guztiak ez dute euskaraz egiten haien artean.

Gazteak, aisialdia eta erabilerarako espazioak

Kezka berezia sortu dute gazteen erabilera datuek. Kale-erabileran haurrak dira euskaraz gehien egiten dutenak (%30,2), baina 15 eta 24 urte arteko gazteen artean erabilera %9,5era jaisten da. Horregatik, diagnosian parte hartu duten herritarrek aisialdia, gazteak eta familia-transmisioa identifikatu dituzte lehentasun nagusi gisa.

Inkestan aisialdiak jaso ditu aipamen gehienak, gazteen eta familiaren aurretik. Izan ere, herriko eragile askoren ustez, aisialdi eta kultura eskaintza euskaraz “murriztua” da, batez



Arkaitz Uranga Eibarren AKEBAIko koordinatzailea. OIHANEZABALA

ere adin batetik aurrera. Urangaren arabera, hor dago erronka handietako bat: “Euskara ezin da ikasketetara edo lan mundura mugatu. Gure eguneroko bizitzako esparru guztietan egon behar du”.

Diagnosian kirola, kultura eta aisialdia behin eta berriz agertu dira euskararen erabilera indartzeko giltzarri moduan. Hainbat lan-mahaitan azalera dute, ordea, esparru horietan ere inertzia erdaldunak nagusitzen direla sarritan, baita euskaraz bizi nahi dutenen artean ere.

“Gutxiengoan egotearen sentazioak desgastea sortzen du”

Diagnosiaren beste ondorio nagusietako bat “estres linguistikoaren” presentzia izan da. Parte-hartzaileek lotsa, gatazkaren beldurra eta nekea identifikatu dituzte euskararen erabilerarako oztopo nagusien artean. Urangaren hitzetan, “gutxiengoan egotearen sentazioak desgastea sortzen du”.

AKEBAIko koordinatzailearen ustez, euskararen aldeko militantziak ere neke puntu bat eragiten du. “Euskararen alde lan egitea

>>> Erosotasunak, ohiturek, hiriko egoera soziolinguistikoak edo kalean arnasten den giroak eragin handia dute

>>> Euskara ezin da ikasketetara edo lan mundura mugatu. Gure eguneroko bizitzako esparru guztietan egon behar du

askotan korrontearen kontra arraun egitea da”, azaldu du. Hala ere, “erreezinak” diren herriarrak ere badirela nabarmendu du, urteak pasa arren konpromisoari eusten diotenak.

Hizkuntza inertzien ere pisu handia dute Eibarren. Diagnosiak ondorioztatu du talde batean erdaldun bakarria egoteak sarritan hizkuntza aldaketa eragiten duela. Horren aurrean, Urangak “ariketa kontzientea” egitearen alde egin du: “Lau lagunek euskaraz



badakite eta batek ez, ezin dugu automatikoki erdarara jo. Esplizitatu egin behar dugu gure artean euskaraz egingo dugula eta beste pertsonari laguntza eskaini”.

Bere ustez, hizkuntza ohiturei buruz hitz egitea bera ere deserrosoa egiten da askotan, baina inertziak apurtzeko ezinbestekoa da.

Familia-transmisioa, kezka nagusietako bat

Familia-transmisioa da diagnosiaren beste puntu kritikoetako bat. Etxean gaztelania da hizkuntza nagusia (%58,5), eta euskaraz bakarrik aritzen diren familien portzentajea %19 ingurukoa da azken bi hamarkadetan.

Urangaren arabera, maiz pentsatu ohi dugu Dereduaren hedapenarekin transmisioa “bermatuta” dagoela, baina hizkuntza eskolara mugatzeko arriskua dago.

Diagnosian parte hartu duten hainbat herritarrek ere kezka bera azaldu dute: euskaraz dakiten guraso askok etxean gaztelaniaz egiten dute, eta belaunaldi berriek ez dute euskararen “lekukoa” hartu.

Euskara, integrazioarako tresna

Etorri berrien integrazioari dagokionez, AKEBAIk aukera moduan ikusten du euskara.

Diagnosiaren AMIA analisisetan ere hizkuntza “integrazio tresna” gisa ageri da. Hala ere, erronka handiak daudela aitortu dute. Etorri berriek askotan heldu arte ez dute euskararen existentziaren berri, eta egoera zaugarrietan beste lehentasun batzuk izaten dituzte. Horregatik, Urangaren ustez, beharrezkoa da integrazio prozesuetan euskarak hasieratik presentzia izatea eta “egiturazko sistema” bat eraikitzea hizkuntzaren bidelaguntza bermatzeko.

“Herritar guztion ardura da”

Bestalde, AKEBAIk berak ere autokritikarako tartea izan du. Elkarriketatutako herritar batzuek uste dute plataforma “instituzionalizatu” egin dela eta hasierako indarra galdu duela. Urangak kritikaren zati bat “ulergarria” dela dio, gaur egungo gizarte “hiperazeleratuan” talde ekimenez higadura jasaten dutelako.

Hala ere, diagnosiak argi utzi du herrian badagoela norabide komun bat: “Euskaraz bizi ahal den herria” eraikitzea.

Horretarako, Urangak ezinbestekotzat jo du herritarren inplikazioa: “Euskararen normalizazioa ez da euskara teknikarien edo euskara elkartearen ardura bakarrik; herritar guztion ardura da”.

DEBABARRENEAN ZEHAR



AURREKO SAIOAN

Eskualdean sare sozialetan edukia sortzen duten hainbat pertsona ezagutu genituen, bakoitzak lantzen dituen gai, estilo eta eduki motak aztertuz.

HURRENGO SAIOAN

Debabarreneko herrietako ereserki, kanta, martxa eta doinu ezagunen inguruan arituko gara, herri bakoitzaren nortasunarekin duten lotura ezagutuz.

ALBISTEAK

Eibarko Mendiak Bizirik plataformak XVI. Gal-daramiño Igoeran parte hartzera deitu du.



Debabarreneko gazte asanbladek umorezko bideoekin deitu dute Elorrioko topaketetara.



Mai 22

TERTUL.	MERIENDA TERTULIA GAZTE SAFA	17:00	IMP (EIBAR)
ERAKUS.	EGUR TAILERREKO IKAS- LEAK	18:30	KULTUR ETXEA (EIBAR)
AURKEZ..	BIZITZA BATEN TXATALAK ONINTZA ENBEITA	18:30	UDALETXEA (MENDARO)
MUSIKA	ROBERTO NIEVA SAXOFOILARIA	21:30	SAN AGUSTIN (MENDARO)
ANTZER.	BIRAKOLORE	19:00	S. BERSALUZE PLAZA (DEBA)
MUSIKA	KODA ETA ARRAMAZKA	19:30	ITXAS GAIN (DEBA)
UMOREA	TONGOLA IKUSKIZUNA	20:00	KULTUR ELKAR- TEA (DEBA)
MUSIKA	GIANTE + CALATHEA	22:30	GAZTETXEA (MUTRIKU)

Mai 23

KIROLA	BODY POWER JARDUERA	09:30	KIROLDEGIA (ERMUA)
TAILER.	LA VOZ DE LA POESÍA OLERKIA	11:00	HERRIGUNEA (ERMUA)
EGITAR	ERMUKO VIII. GAZTE EGUNA	EGUN OSOA	(ERMUA)
TAILER.	PARKOUR	17:00	LIBURUTEGI ATEA (ERMUA)
EGITAR	SASKIBALOI EGUNA	10:00	UNTZAGA (EIBAR)
ROL JOKOAK	HEROES DE GRAFITO	EGUN OSOA	ERREBAL (EIBAR)
KORUA	MUSIKALERA GOAZ EKOS	19:00	IMP (EIBAR)
EGITAR.	"RONIN FIGHT CLUB" 10. URTEURRENA	EGUN OSOA	RONIN + ? (EIBAR)
FERIA	AZKEN ZAPATUA	09:00	AITA AGIRRE (ELGOIBAR)
TOPAK.	CAPOEIRAREN NAZIOARTEKOA	10:30	(DEBA)
ANTZER.	BERNARDA KLOWNAREN ETXEA	19:00	ISPILUEN GELA (DEBA)

Pintxoarekin eta tragoarekin, zientzia hobeto sartzen da

Zientzia eta teknologia herritarrengana hurbiltzeko asmoz, Tekniker ikerketa zentroak 'Teknipoteoa' ekimena jarri du martxan. Formula nahiko erraza da: pintxo eta pote artean, teknologia eta zientziaren dibulgazioa egitea. Horretarako, zentroan lan egiten duten lau lagunek hitzaldi laburrak eskainiko dituzte ekainaren 4an, Depor tabernan.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**



Eman izena



Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak bultzatuta sortu zen Tekniker, Iñaki Goenagaren ekimenez, inguruko enpresen beharrak asetzeko zerbitzuak garatzeko asmoz. Armeriako laborategia lagata, Otaola kalean izan zuen egoitza urte askoan eta, zentro teknologikoaren hazkundearen beharrei jarraituz, Azitaingo poligonora lekualdatu zen 2013an. Eibartik mundura, hainbat proiektu garatu dira bertan eta herrikideei azaldu nahi diete egiten dutenaren zati-txo bat.

Mokadutxo bat izango da, erraz irenstekoa, pintxo bat bezala. Eta pintxoak laguntzeko, tragoak ere ez dira faltako 'Teknipoteoa' egitasmoan. Giro lasaian, gai mardulak lurrera ekarriz eta guztion ulermenerako, lau hitzaldi eskainiko dituzte ekainaren 4an, eguena, 18:30ean, Depor tabernako goiko

solairuan. Jarduerak ordubete eta ordu eta erdi artean iraungo du, bertan sortzen den giroaren eta berba egiteko gogoaren arabera, galderak egitea ere zilegi delako.

Jarduera irekia izango da, baina aurretik izena eman beharko da orrialde honetan agertzen den QR kodea eskaneatuz. "Batez ere, zenbat jende etorriko den kalkulatzeko da, gutxienez pintxo eta pote bana gure kontura emango ditugu-eta", dioskue Teknikerretik.

Horrelako zerbait Eibarren egiten den lehen aldia izango da, baina azkena ez izatea espero dute antolatzaileek, ohiko zita bihurtzea nahi baitute. Mundu mailan bai, horrelako ekintzak egin izan dira eta, besteak beste, ezagunak dira 'Pint of science' edo 'Beer of science' (eta gertuago, 'BarLab, zientzia pote bat') izeneko egitasmoak, garagardo artean zientzia dibulgazioa egiteko.



Ikerketa zentroa laga eta Depor tabernara joango dira Teknikerrekoak, zientzia eta teknologia herritarrei geruratzeko. ©TEKNIKER

Lau hizlari

Zientzia eta teknologia eibartarrei gerturatzeko, herrian ezagunak diren aurpegiak izango ditugu Deporren: Iban Arriola, Jon Ander Sarasua, Eider Garate eta Andoni Egurrola. Arriolak aurkezpena egingo du eta beste hirurek hitzaldiak eskainiko dituzte, Teknikerren lantzen dituzten gaietako batzuk aurkeztuz.

Arriolaren aurkezpeneko hitzaldiak 'Teknologiaren garapena Eibartik mundura' izena izango du. "Teknipoteoari hasiera emateko Eibarko historia teknologikoarekin hasiko gara", azaldu digute. Badira urteak Eibar makina erremintaren munduan sartu zela, bizikleten garaia, armagintza... Aurkezpen honetan Eibarren industrializazioaren errepaso kronologikoa egingo dugu, iraganetik gaur egunera arte". Modu horretan, Eibar aztergai izanik, "Tek-

Teknikerrek 'Teknipoteoa' egitasmoa eskainiko du ekainaren 4an, Depor tabernan

Ikerketa zentroan lantzen dutena, eta zientzia eta teknologia gaiak herritarrei hurbildu nahi dizkiete

nipoteora' gerturatzeko diren entzuleak interpelatuak sentitzea eta euren arreta eskuratzea izango dute helburu.


Arriolaren ondoren, Sarasuaren txanda iritsiko da 'Birziklatu bai... eta konpondu, zer?' hitzaldiarekin. "Jasangarritasunari buruz berbetan egiten dugunean, beti ateratzen da klima-aldaketaren gaia. Arazoan sakonduz gero, mundu mailako CO2 igorpenen % 80 geure eguneroko produktuen atzetik datorrela ikusiko dugu. Badirudi bide zuzena birziklapena dela. Plastikoa edukiontzi horira, papera urdinera, beira berdera... eta kitto! Jokabide honekin ez dugu asko aurreratuko, birziklatzeak demaseko energia eta baliabide pila bat kontsumitzen dituelako. Orduan, zein konponbide geratzen zaigu? Galdera honen erantzuna galderan bertan dago ezkutatuta", azaldu digute hitzaldiaren inguruan.

Teknikerren lanean diharduten lau lagunek egingo dute berba Deporreko egitasmoan



Bigarren hitzaldia Garateren esku geratuko da eta horren izenburua 'Errealitatea berridazten: Adimen Artifiziala eta Kuantika' izango da. "Azken bi urteetan asko entzun dugu Adimen Artifizialaren inguruan eta, askotan, denerako balio duen magiatzat erakutsi izan da. Baina ez da magia, errealitatea interpretatzeko gaitasuna duten algoritmoak dira. Errealitatearen ikuspegia pertsonaren, kulturaren, adinaren eta generoaren arabera koa izan daiteke, besteak beste, baina fisikaren ikuspuntutik bi modutan ulertu daiteke: modu klasikoan edo kuantikoan. Ordenagailu kuantikoak ez dira izango arazo guztien konponbide, baina errealitatea deskribatzeko ikuspuntu berria ekarriko dute", aurreratu digute.

Azken hitzaldia Egurrolak emanango du eta 'Partikulak azeleratuz, minbiziaren aurkako fisika ikusezina' izango da bere izenburua. "Minbiziaren aurkako borrokan



Andoni Egurrola, Eider Garate, Iban Arriola eta Jon Ander Sarasua izango dira hizlariak.
©TEKNIKER

'Teknipoteoa' ohiko zita bihurtzea nahi dute eta, horretarako, herritarren parte-hartzea sustatu nahi dute

pentsetan dugunean, gutxitan imajinatzen ditugu tratamenduen atzetik dauden teknologiak. Hala ere, gaur egungo tratamendu askotan, argiaren abiaduratik gertu bidaiatzen duten partikula ikusezina erabiltzen dira. Partikula horiek azeleratzeko erabiltzen diren teknologia ezberdinak, hauen funtzionamenduen oinarria zein den eta lantzen ari garen aurrerapausoak azalduko dira hitzaldian", dioskue antolatzaileek.

Banatu dira Ipurterre Ipuin Lehiaketako sariak

Aste honetan eman dira ezagutzera aurtengo Ipurterre Ipuin Lehiaketako sariak. XXXII. edizio honetan ere lan ugari jaso ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak LH1 eta DBH 4 mailetara arteko ikasleen aldetik. Baina denak ezin dira saritu eta bost banatu ditu, urtero moduan, euskara elkarteak. LH 1-2 mailan Claudia Aranzabal (San Andres ikastetxea) izan da irabazlea; LH 3-4 mailan Unax Ferreiro (La Salle Isasi) eta LH 5-6 mailan Intza Amillategi (J. A. Mogel). DBH 1-2 mailan Iruñe Inciartek (La Salle Azitain) eraman du saria eta DBH 3-4 mailan ikastetxe bereko Itziar Gamarok. Imanol Ituiño magoaren ikuskizunak jantzi zuen eguazteneko sari-banaketa ekitaldia Coliseo antzokian.



Familia berbalagunak Eureka Zientzia Museoa izan dira

Zapatu goiz zoragarria pasa zuten Ongietorri eta Gurasoak Berbetan egitasmoetako familiek. Autobusa hartuta, hirurogeitik gora lagun abiatu ziren Donostiako Eureka Zientzia Museora. Adi jarraitu zituzten gidariaren azalpenak: zentzumenak eta sentikortasuna, elektrizitatea, argi-jokoak, mundu mekanikoa... Bisita gidatua amaitu ondoren, Planetariumean sartu ziren eta, bertan, unibertsoko planetak ezagutu zituzten Roke espazio-ontziaren historiaren bitartez. Gauza asko ikasita eta pozarren itzuli ziren Eibarrera ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako irteeratik. Ekainaren 11n, Berbetan jaialdiak agurtuko du ikasturtea, DJ Mitxelen saioarekin.



Gaztesafa eta Ongietorri programaren arteko topaketa egin dute ...eta kitto!-n

Eibarko Gaztesafa emakume musulmanen elkarteko eta Ongietorri ...eta kitto! Euskara Elkartearen programako kideak elkartu egin dira aste honetan ...eta kitto!-ren egoitzan. Elkarren berri izan, elkar ezagutu eta batzuek zein besteek egiten dutena partekatzea izan da topaketaren helburua. Gaztesafak emakume musulmanen ahalduntzea eta gizartean parte hartzea sustatzen du, euren egoera hobetzeko. Lehengo Safaren ildo beretik jarraitzeaz gain, ikuspegi berri bat eman diote belaunaldi gazteenei begira, gazteek hartu baitute elkartearen erreleboa. Besteak beste, hainbat jarduera egiten dituzte urtean zehar aniztasun kulturala lantzeko. Ongietorri programa harrera eta elkarbizitzareko programa da eta euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera ematen die parte-hartzaileei.



Garikoitz Rodriguez San Andresen irabazle

E.B. Joan den zapatuan, maiatzak 16, Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketaren 8. jardunaldia jokatu zen San Andres bolatokian. 67 bolarik hartu zuten parte bertan eta eibartar bat gailendu zen: Garikoitz Rodriguez. Asola Berriko bolariak 5 txirlo eskuratu zituen eta baita 2. sailkatuak ere, Ezoziko Javi Marinok.

Hurrengo jardunaldia Bergaran jokatuko da, bihar, 17:00etan.



Urbateko hamar lagun Gipuzkoako selekzioarekin Poloamigos txapelketan

E.B. Joan den asteburuan Poloamigos txapelketa jokatu zen Zaragozan eta Urbat Urkotronik taldeko hamar jokalaririk izan ziren bertan Gipuzkoako waterpolo selekzioarekin. Asteburu ederra bizi izan zuten eta, gainera, denak igo ahal izan ziren podiumera.

Gizonezkoen selekzioak txapelketa irabaztea lortu zuen eta emakumezkoenak brontzezko domina lortu zuen. Horrela, Urbatekoek

esan dutenez, jokalarientzat oso esperientzia aberasgarria izan zen, bai uretan bai uretatik kanpo.

Urbat Urkotronik taldeen jardunari dagokionez, joan den asteburuan emakumezkoen taldeak bi neurketa jokatu zituen. 1. Euskal Herriko Ligan 15-9 gailendu zitzaion CD Larrainari; Kopan, ostera, 22-13 galdu zuen Lauroren aurka, etxetik kanpo. Aurkari indartsua izan zuen aurrean eta aurpegia eman zuen.



Txosnarekin eta lehiaketekin ospatuko da bihar Saskibaloia Eguna

E.B. Asteburuan saskibaloia izango da protagonista herrian, Eibar Saskibaloia taldearen eskutik. Izan ere, bihar, Saskibaloia Eguna ospatuko da Untzagan eta, kirolaz gozatzeko aukera emateaz gain, txosna, jarriko dute musika, janaria eta edatekoa eskaintzeko, auto bat probatzeko aukera egongo da eta Lacturalek opariak emango dizkie jokalariei.

Egitaraua 10:00etan hasiko da saskibaloia proba batzuekin, 14:00ak arte. Horrela, 3 vs 3 lehia-

keta, hiruko jaurtiketen lehiaketa eta gaitasun probak egingo dira. Ondoren, sari banaketa egingo da eta, horrekin amaituta, zozketa.

Hauek izango dira banatuko dituzten sariak: Bilbao Basket taldeko jokalariek sinatutako ACB Wilson baloia, Bilba Basketekoek sinatutako kamiseta, Artesanos Juantxoren elikagai eta edari sorta, bi lagunentzako bazkaria edo afaria Azkena tabernan, eta pilo hori-urdina eta Eibar Saskibaloia-aren bufanda.



Ehun lagun baino gehiagok hartu zuten parte Eibar100 Trail Erronkan

E.B. Barixaku iluntzean hasi eta zapatu arratsaldera arte, Eibar100 Trail Erronka egin zen gure inguruko mendietan zehar. Ehun lagun baino gehiagok hartu zuten parte eta partaideen laurdena emakumeak izan ziren, antolatzaileek diotenez. Gainera, partaideetako asko gazteak izan ziren, trail batean izan duten lehen esperientzia biziz. “Esan dezakegu ekimen arrakastatsua izan dela”, euren berbetan, “eta parte-hartzaileak oso pozik azaldu dira ibilbidearekin eta antolaketarekin”.

Ehun kilometroko erronka sei etapatan banatu zuten antolatzaileek, etapa bakarra, bi, hiru edo nahi beste egiteko aukera emanez, eta zortzi lagunek ibilbide guztia osatzeko balentria egin zuten. “Horien artean, lehen aldiz, neska bat, benetan ere pozgarria”, antolatzaileen berbetan.

Erronka ez da nolana hikoia izaten eta aurreko egunetan egindako euriak are zailagoa jarri zuen kontua. Horren adibide da aurreko edizioan baino lagun gutxiagok osatu zutela ibilbide osoa.

Erronka amaitzerakoan, opariaren zozketa egin zen eta giro bikaina

sortu zen Depor parean. “Esker mila babesleei eta 31 opariak eman zituzten Eibarko saltokiei euren eskuzabaltasunarengatik”, diote antolatzaileek.

Dagoeneko Eibar100 Erronkaren hirugarren edizioan pentsatzen hasi dira, “ilusioz eta motibazioz”, eta 2028. urterako jarri dute zita. Dena dela, aurtengo gogoratzeko, erronkaren kamiseta Deporren jarri dute salgai, martitzen eta eguinetan, 19:00etatik 20:00etara.

Trabuko Bidearen 4. etapa

Eibarko Klub Deportiboko mendizaleek Trabuko Bidearen laugarren etapari ekingo diote bihar, maiatzak 23. Larunbe eta Latasa lotuko dituen 22 km-ko ibilbidea egingo dute, bidean Erga mendia igoz. Horrela, ibilbidea goraka metatutako desnibela 1.280 m-koa izango da eta beheakoa 1.355 m-koa. Dena dela, antolatzaileek bi ibilbide alternatibo eskainiko dituzte, bata 19,6 km-koa eta bestea 16,4 km-koa.

Irteera 07:30ean egingo da eta 18:00etan iristea aurreikusten dute antolatzaileek.

Futbol zaletuaren Kopako finala jokatuko da bihar

E.B. Bihar jokatuko da futbol zaletuaren Kopako finala. Malape Taberna eta Bergara Pneumatikoak taldeak arituko dira nor baino nor, 10:30ean Unben jokatuko den neurketan.

Finalaurreko partiduetan, Malapek 7-2 irabazi zion Garajes Garcia taldeari eta Bergara Pneumatikoak taldeak 2-0 Xania Tabernari. Horrela, Liga irabazi eta Kopa lasai antzean hasi ondoren, Malapek garaipen bikoitzak eskuratzeko aukera izango du.

Finalaren ondoren, antolatzaileek sari-banaketa egingo dute Unbeko tabernan.

Sonia Mendy 5. izan da Euskadiko Txapelketan

E.B. Joan den asteburuan 16 urtez azpikoen Euskadiko Atletismo Txapelketa jokatu zen Bilbon, Zorrotzako atletismo pistan.

Eibarko Klub Deportivoaren aldetik, Sonia Mendy, Malen Anderez, Naia Astigarraga, Oier Atxa eta Unai Alvarez aritu ziren bertan, Euskal Herriko beste 500 atleta ingururen artean.

Eibarko gizonezkoak 100 metroko lasterketan lehiatu ziren eta, bertan, Unai Alvarez 8. izan zen 12.22 s-ko denborarekin eta Oier Atxak 16. amaitu zuen 12.97 s-ko denbora eginda.

Emakumezkoek dagokienez, 100 m-ko proban, Naia Astigarraga 15. izan zen (13.60 s), Sonia Mendy 26. (14.02 s) eta Malen Anderez 27. amaitu zuen (14.06 s). 300 m-koan, Malen Anderez 16. izan zen (47.45 s); eta pisu jaurtiketan, Sonia Mendy 5. izan zen pisua 8,45 m-ra bidalita.



Kalamuako judokentzat dominak Gipuzkoako Alebin Kopa eta Txapelketan

E.B. Emaizta bikainak eskuratu zituzten Kalamua judo klubeko gazteek Gipuzkoako Alebin Kopan eta Txapelketan. Rabab Chouma txapel-dun izan zen emakumezkoen -48 kiloko kategorian. Kalamuako judokak txapelketa bikaina egin zuen, finaleko faseko lau borrokaldiak irabazita eta aurretiko ligaxkako guztiak ere menderatuta.

Bestalde, mutilen kategorian ere podiumera igo zen Einar Grande

brontzezko domina lortuta -52 kiloko mailan, borrokaldi sendoak eginez eta txapelketan maila ona erakutsiz.

Gipuzkoako Kopan, berriz, Amets Alonsok zilarrezko domina lortu zuen gizonzkoen -38 kiloko kategorian. Judoka armaginak garai-pen garrantzitsuak batu zituen bere ligaxkan eta finalera heltzea lortu zuen, azkenean bigarren postuan amaituta.

Ipuruako klubeko Nahia Arguizek urrezko domina irabazi du Euskadiko Txapelketan



E.B. Asteburuan gimnasia erritmikoko Euskadiko Txapelketa jokatu zen Leioan eta Ipuruako Nahia Arguizek master kategorian irabazi zuen. Lehena izan zen pilotarekin zein uztailarekin, eta urrezko domina erantsi zuen. Horrela, Guadalajaran jokatu den Espainiako Txapelketarako txartela lortu du.

Arrate Bascaranek ere osolan txukuna egin zuen senior mailan, baina podiumetik kanpo geratu zen, 5. postuan.

'Trierronka' egingo dute Alberdik eta Osorok

E.B. Euskadi Irratiak xaxatuta, erronka berri bati baietz esan diote Helene Alberdi eta Pello Osoro triatlolariek. 'Trierronka' izena eman diote eta Euskal Herriko hiru kirol-proba esanguratsu hartu dituzte kontuan jarduera diseinatzeko orduan: Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia, Itzulia txirrindularitza lasterketa eta Zegama-Aizkorri mendi-lasterketa.

Getariatik Zarautzera igerian joango dira, Zarautzetik Arantzazura bizikletan eta handik Aizkorriara igo (eta berriz jaitsi) oinez edo korrika. Proba ekainaren 20an egingo dute eta laster emango dituzte horren inguruko zehaztasun gehiago.



Gorrotxategi eta Oyarzabal omenduko dituzte gaur

E.B. Dantzaren Nazioarteko Eguneko ekintzekin bat egiten zuenez omenaldia atzera bota ondoren, Eibarko Udalak Jon Gorrotxategi eta Mikel Oyarzabal futbolarietara aitortza egingo die gaur, maiatzak 22, 19:00etan, Untzagan.

Realarekin Kopa irabazi ondoren, Oyarzabalek finalean gola sartuta gainera, herrikideen be-roajaso dute horrela futbolarietara. Horretarako, 19:00etan, Untzagan harrera egingo zaie eta, gero, Udaltzeko balkoira igoko dira agurtzera.



Borroka egiteaz gain, lagun taldea osatzen dute Ronin elkarterko kideek. RONIN

Ronin borroka klubak bihar ospatuko du 10. urteurrena

Hamarkada bat bete du Ronin borroka klub autogestionatuak eta ondoen dakiten moduan ospatuko dute: borroka egiten. Bihar goizean erakustaldia eskainiko dute Urkizuko parkean eta, gero, musikarekin jarraituko dute ospatzen, Eibarko Gaztetxean. Zorionak!

E.B. Ronin aitzindaria izan zen Eibarren eta inguruetan, ez baitzegoen borroka klub autogestionaturik. Irabazi asmorik gabeko elkarte da eta hori azpimarratzea garrantzitsua dela uste dute kideek. “Ez ginen bat etortzen inguruko gimnasioen ereduarekin. Klubeko kide askok esperientzia txarrak izan zituzten beste gimnasio batzuekin, eta entrenamenduetan edo lehiaketetan elkarrekin ibiltzen ginenez, gure artean berba egin eta gure kabuz gimnasioa martxan jartzea erabaki genuen”, azaldu digute.

Sasoi horretan, euretako batzuk lehiaketetan aritzen ziren, baina entrenatzeko Donostiara joan behar ziren, hemengo gimnasioek ez zituztelako ateak irekitzen domeketan. “Gauregun badago aukera, baina sasoi hartan ez”, dioskue, “eta horregatik, gimnasioen eredu gustatzen ez zitzaigunez, klubari Ronin izena jartzea erabaki genuen, Ronin jabe-feudalik gabeko samuraia delako eta, libre denez, bere bidea jarraitzen duelako”.

Elkarte sortu zuten gehienak arte martzial tradizionalen mun-

dotik zetozen, eta bushidoaren arauak eta errespetua ekartzea berebizikoa zela pentsatu zuten, hau da, arte martziala bizimodu bezala hartzea. Horregatik, kirol elkarteaz gain, kulturala ere bada.

Borroka eta kontzertuak

Roninen hamargarren urteurrena ospatzeko egitaraua 11:00etan hasiko da, Urkizuko parkean, bo-xeo, kickboxing, MMA eta jiu-jitsu ikuskizunarekin. “Lehendabizi, entrenamendua egingo dugu jendeak ikusteko nolakoa den horrelako arte martzialtako entrenamendu bat, gero teknika batzuk egingo ditugu jende guztiarentzako eta, amaitzeko, gure artean borroka batzuk egingo ditugu”, dioskue.

Hori guztia Ronineko kideek egingo dute, “orain dela hamar urte hasi zirenak eta poliki-poliki sartzen joan direnak, gimnasioan jende anitza eta denetarik dagoela eta denetarik egiten dugula ikusteko. Hau da, ez garela arte martzial batera mugatzen, baizik eta diziplina asko jorratzen ditugula”.

Borroken ondoren, 17:00etan, Gaztetxean, pintxada egongo da DJ Pituforen eskutik eta, eguna amaitzeko, kontzertuak Ronkoi, Espal-oi, Lee Kore eta Amildegitaldeen eskutik.

Aipatu behar da, Gaztetxean ateratzen duten diru guztia '12 plataforma'-ra bideratuko dutela. “Faxismoaren aurrean, gure baloreekin bat egiten duelako. Urriaren 12an espainiar faxismoari aurre egiteagatik isuna jaso zutenei eta auziperatu zituztenei laguntzeko izango da dirua”, azaldu digute.

Artikulu osoa eta argazki gehiago





Martxan da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako **“Niren hasi euskaraz”** kanpaina. Helburua da **ostalarien eta herritarren** arteko lehen harremanetan euskararen erabilera bultzatzea, **lehen hitza edo agurra euskaraz** eginez.

Ondorengo orrietan dituzue herritarrentzat atera ditugun **pegatinak**. Dinamika erraza da: jarri pegatina eta tabernako barrara hurbiltzean, kanpainako pin-a duen zerbitzariari egiozu, lehenengo hitza behintzat, euskaraz.

Elkarrizketa euskaraz hastera ez da zaila, **hitz bakarrarekin** has gaitezke: kaixo, egun on, eskerrik asko... Keinu txiki horrek ateak zabaltzen dizkio euskarari.

Hitz bakar batek dena alda dezake, hasi euskaraz!!

Parte hartzen duten tabernak:

Akara, Amesti, Ametsa, Aterpe, Azkena, Balkoi, Beleko, Bossa, Buenos Aires, Casino, Depor, Eibarko Hoggar, Guridi, Juanito, Kalaka, Katu Kale, Kili kili, Kontent, Kultu, Le petit, Ongietorri, Portalea, Sheiko, Tarte, Trinkete, Txaltxa, Txoko.

etxe- apainketa

M A I A T Z A



2 0 2 6 K O

gehiqarria

ETXETIK LAN EGITEKO TXOKO APROPOSA SORTZEN

Gero eta gehiago gara etxetik lan egiten dugunak, eta horrek etxe barruko espazioak beste modu batera antolatzea eraman gaitu. Ordenagailua edozein mahaitan jartzea ez da nahikoa: gaur egun, eroso, praktikoa eta atsegina izango den lan-eremu bat sortzea ezinbestekoa bihurtu da.

Argitasunak, koloreek, altzariak eta dekorazioak zuzenean eragiten dute gure kontzentrazioan eta ongizatean. Horregatik, gero eta jende gehiagok bilatzen ditu produktibitatea eta etxeko erosotasuna uztartzen dituzten espazioak.



Hona hemen etxean lan egiteko bi dekorazio-estilo inspiragarri.

Minimalismo beroa: lasaitasuna eta ordena

Estilo minimalista beroak gero eta indar handiagoa hartu du etxeko bulegoetan. Helburua argia da: zarata bisuala gutxitu eta lanerako giro lasaia sortzea.

Horrelako espazioetan egur argiak, tonu neutroak eta argi naturala dira protagonistak. Altzari gutxi erabiltzen dira,



 <p>GOKI erreformak</p> <p>FATXADAK · TEILATUAK · IGOGAILUAK</p> <p>Olaso kalea 15, 20870, Elgoibar 943744223</p>	 <p>GOKI & MJ erreformak maria jaka</p> <p>BARNE DISEINUA · ALTZARIAK</p> <p>Errebal kalea 24 baxua, 20600, Eibar 688669081</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

baina denek dute funtzio zehatza. Mahai sinple batek, aulki eroso batek eta apal ireki batzuek nahikoa izan dezakete txoko praktikoa eta dotorea osatzeko.

Landareek ere garrantzi handia dute; naturaltasuna emateaz gain, giro atsegina sortzen dute.

Estilo hau aproposa da kontzentrazioa eta orden mentala bilatzen dituztenentzat.

Estudio sortzailea: nortasuna duen lan-gunea

Sormenarekin lotutako lanetan aritzen diren askok espazio dinamikoagoak nahi dituzte. Kasu honetan, dekorazioak inspirazioa piztea du helburu.

Koloreek, ilustrazioek, liburuek eta objektu pertsonalek nortasuna ematen diote lan-guneari. Argiztapen epelak eta LED zeharkako argiek giro modernoagoa sortzen dute, eta hormetako panel edo moodboard-ek ideiak antolatzen balio dute.

Material ezberdinen nahasketak —egurra, metala eta ehunak— beroa eta modernitatea uztartzen ditu.

Espazio mota hau ezin hobea da diseinatzaile, sortzaile digital edo etxean inspirazioa behar duten profesionalentzat.



Esperientzia eta erantzukizuna

Kalitatezko lanak

Konfiantzazko zerbitzua

Lanean zurekin...
...etorkizun hobeko goza dezazun.

Tailerrak, fatxadak, igogailuak, teilatuak, bulegoak...

irazabal

943 120 108 www.irazabal.net eraikuntzak erreformak igeltzeritza Azitain industrialdea, 3-H, EIBAR

70eko HAMARKADAREN ITZULERA: DEKORAZIO RETROA BERRIZ MODAN

70eko hamarkadako estetika ez da iraganeko modako pasarte hutsa. 2026an interiorismoaren joera nagusietako bat bihurtu da berriz, baina gaur egungo ikuspegitik berrinterpretatuta.

Minimalismo hotzaren eta tonu neutroen nagusitasunaren ondoren, etxeak berriz ere beroagoak, nortasun handiagokoak eta bizitzaz beteagoak bihurtzeko beharra sortu da. Eta hor dago 70etako estiloaren itzulera: kolorea, testura eta emozioa berriz erdigunean.

Kolore beroak eta nortasun handiko giroak

Terrakota, mostaza, laranja errea, marroia eta berde oliba bezalako tonuak indar handiz itzuli dira. Kolore hauek giro beroa sortzen dute eta espazioari nortasun handia ematen diote.

Forma organikoak eta material naturalak

Belusezko sofak, alfonbra testuradunak eta argiztapen epela dira estilo honen osagai nagusiak.



1964 estudio
Proiektuak
Interiorismoa
Altzariak

Jardiñeta 14 · tlf. 656756485 ·

DOMO
GESTION INTEGRAL

Migel Aginaga 5
20600 Eibar, Gipuzkoa
T: 659 916 849

Lerro zuzen eta hotzak atzean geratzen ari dira. Horien orde, forma kurbatuak eta leunak nagusitzen dira: sofa biribilduak, aulki inguratzaileak eta mahai organikoak. Egur iluna, ratan-a eta beira kezkatua ere berriz modan daude, ukitu retro dotorea emanez.

Argiztapena: giroaren arima

Argiak ez du funtzio praktikoa soilik: emozioa sortzeko tresna bihurtu da. "Seta" motako lanparak, argi epelak eta puntu zeharkako argiztapena dira 70etako giroa berreraikitzeko gakoak. Helburua ez da gehiegi argitzea, baizik eta giro intimo eta atsegina sortzea.

Nostalgia bai, gehiegikeriarik ez

Estilo honek arrakasta du, baina gaur egungo ikuspegitik aplikatzen da. Diseinatzaileek gomendatzen dute ez betetzea etxea 70etako elementuz, baizik eta ukitu txikiekin lan egitea. Adibidez, kolorezko sofa bat, vintage lanpara bat edo alfonbra geometriko bat. Nahikoa da espazioari nortasun retroa emateko.



943 702199, BIRJIÑAPE 1
JAINAGA

Gortinak · Alfonbrak · Mokatak
Errailak · Tapizeria




**ISOLAMENDUAK
ERREFORMAK
ERAIKIN ERREHABILITAZIOA
OBRAK ETA PROIEKTUAK**

943 57 41 03 Txonta, 27 - behea jmr@jmr.eus



LEIHO HANDIAK: ARGIA DA LUXU BERRIA

Gero eta etxe gehiagotan, leiho handiak dira protagonista. Argi naturalaren sarrera maximizatzea ez da estetika kontua soilik: ongizatearekin eta bizikaltatearekin lotuta dago zuzenean.

Leiho handiek espazioa handitu egiten dute bisualki, eta kanpoaldea etxearen parte bihurtzen dute. Horregatik, gero eta ohikoagoa da “barrua eta kanpoa” muga lausotzea.

Leihoak estaltzeko moduak ere aldatu egin dira. Oihal astunak eta dekorazio gehiegizkoa atzean geratzen ari dira, eta horien ordean, lihozko kortinak, kolore neutroak eta diseinu sinpleak nagusitzen dira.

Egurrezko markoak ere berriz modan daude, bereziki tonu argi edo naturaletan, etxeari berotasuna emanaz.



An advertisement for 'dica sukaldeak' and 'URRATEGI INTERIORISMO'. The background is dark with a textured, geometric pattern. The text 'dica' is in a large, white, lowercase font, followed by 'sukaldeak' in a smaller, white, lowercase font. Below this is a logo consisting of three overlapping white rectangles. To the right of the logo, the text 'URRATEGI' is in a large, bold, white, uppercase font, with 'INTERIORISMO' in a smaller, white, uppercase font below it. Underneath 'INTERIORISMO' is the phrase 'barne diseinua' in a smaller, white, lowercase font. At the bottom, the text 'dena sukaldean hasten da' is written in a white, lowercase font. At the very bottom, the website 'www.urrategiinteriorismo.com' is listed, followed by a location 'Azpeitia Arretxe 9 Eibar Arragueta 27' and an Instagram icon.



ESTUDIO MARSÍ

Interiorismoa
Proiektuak / Erreformak
Altzariak

Ego Gain, 2, EIBAR

747492715

📷 estudiomarsi



NEURE

Toribio Etxebarria, 24, EIBAR 943700818 / 615758644

📷 neuredecoracion

EREMUAK BANATU ESPAZIOA TXIKIETAN ERE

Gero eta ohikoagoa da etxe txikietan espazio bakarrean bizitzea, lan egitea eta atsedeen hartzea. Horregatik, gaur egungo dekorazioaren gakoetako bat da eremuak banatzen ikastea, metro karratu gehiago eduki gabe ere.

Kontus ez da hormak eraikitzea kontua, baizik eta espazio berean "giro desberdinak" sortzea: lanerako txokoa, atsedeen gunea, jantokia edo irakurketa-unea, guztiak elkarrekin baina bakoitza bere identitatearekin.

Altzariak, banatzaile isilak

Espazioa banatzeko modurik eraginkorrenetako bat altzariak estrategikoki kokatzea da. Sofak, apalategiak edo kotsola arinak erabil daitezke "muga bisualak" sortzeko.

Adibidez, sofa batek egongela eta jantokiaren arteko muga markatu dezake, hormarik eraiki gabe. Apalategi ireki batek, berriz, argia pasatzen uzten du baina espazioak bereizten ditu.



M10
estudio
Interiorismo

Proiektuak / Berritze lanak / Gremio koordinazioa

www.m10estudio.com
info@m10estudio.com
Egiguren tarren, 10
634 765 799

Pintura eta dekorazioa
EKAIN

Pintura | Zoruak | Paper pintatuak |
Alfonbrak | Izarak eta edredojak |
Burdindegia

Olaso Kalea 15, PAB. 69, ELGOIBAR.
943 821 325 · 629 257 598
ekain@ekain2000.com / www.pinturasekain.com

Alfonbrak: espazioaren mapa bisuala

Alfonbrak dekorazio-elementu hutsak baino askoz gehiago dira. Eremuak definitzeko tresna oso eraginkorrak dira. Alfonbra batek berehala markatzen du non hasten eta amaitzen den espazio jakin bat: egongela, lan-eremua edo irakurketa-gunea. Gainera, beroa eta testura gehitzen dizkio etxeari.

Argiztapena: giroak sortzeko tresna

Argiaren erabilera da espazioak banatzeko modu sotilenetako bat. Ez da beti hormarik behar; batzuetan, argi desberdin batekin nahikoa da. Lan-eremuak argi zuriagoa izan dezake, eta atsedenguneak argi epelagoa. Zutikako lanpara batek edo mahai-argi batek "muga emozionalak" sortzen ditu, espazioa banatu gabe.

Kolorearen laguntza txikia baina eraginkorra

Kolorea ere erabil daiteke eremuak bereizteko. Ez da beharrezkoa etxe osoa margotzea: horma bakar bat edo txoko txiki bat kolorez nabarmentzea nahikoa izan daiteke. Horrela, espazioak identitate propioa hartzen du, baina etxearen batasuna galdu gabe.

mikel elorza

interiorismo

www.mikelelorza.eus

605 773 720

@mikelelorza_interiorismo



Euskadin eta penintsula osoan egiten dugu lan

**BARNEALDEEN DISEINUA**

Espazio funtzionalak, estetikoak eta pertsonalizatuak sortzen ditugu 3D bistaratzeekin, azken emaitza nolakoa izango den ikusteko.

**ERREFORMA INTEGRALAK ETA PARTZIALAK**

Etxebizitzak eta lokalak berritzen ditugu, osorik edo espazio jakin batzuk, hala nola sukaldeak, komunak edo egongelak.

**ALTZARIEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA**

Altzariak neurrirra diseinatzen ditugu txoko bakoitza optimizatzeko, kalitatea, funtzionaltasuna eta diseinua konbinatuz.



📍 Toribio Etxebarria 22, solairuartea eskuma, 20600, Eibar

☎ 661 95 07 10

✉ elena@casanellastudio.com

📷 @casanella.studio

Neurrira egindako ESPAZIOAK

32 ETXE-APAINKETA

DEKORAZIO MODERNOA: SINPLETASUNA, ARGIA ETA NORTASUNA

Dekorazio modernoak ez du esan nahi etxe hotz eta inpersonalak sortzea. Aitzitik, gaur egungo joerak argi erakusten du norabidea: espazio funtzionalak, lasaia eta nortasun propioa dutenak sortzea.

Minimalismo hutsa atzean geratzen ari da, eta haren ordean modernitate beroa deitzen dena nagusitzen ari da: lerro garbiak bai, baina giro atsegina galdu gabe.

Kolore neutroak, baina bizia dutenak

Dekorazio modernoan, kolore neutroek jarraitzen dute oinarri izaten: zuria, begea, gris argia edo lur tonuak. Baina gaur egun, tonu hauek ez dira hotzak; testurekin eta argiztapenarekin konbinatuta, giro beroagoa sortzen dute.

Lerro garbiak eta espazio ordenatua

Dekorazio modernoaren oinarria sinpletasuna da. Altzari gutxiago, baina ondo aukeratuak. Espazio garbiak, non bakoitzak bere funtzioa duen.





Txonta, 30 - 1.a eta behea
Tel. 943 12 13 67
943 12 01 50
info@ulmar.net

Eraikuntza metalikoak
Aluminiozko eta PVCko Aroztegia



Arane, 6 -EIBAR- 943 20 61 64

F. PASCUAL
ARROZTEGIA - EBANISTERIA
SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK



www.cocinaspascual.com

ALTZARIAK NEURRIRA
zure etxea, zure estiloa

ARMAIRU ENPOTRATUAK
Zur mota guztietan
Zure dekoraziora egokituta

SUKALDE ALTZARIAK
Fabrikatzaileak gara
30 urtetik gorako esperientzia

Zubiaurre, 36-38
ERMUA
943 17 68 28



VIRGINIA PASCUAL

Ordena bisualak lasaitasuna sortzen du, eta etxea arnasa hartzen duen espazio bihurtzen du.

Material naturalak: beroaren ukitua

Egurra, lihoa, harria eta beira naturalak gero eta gehiago erabiltzen dira. Material hauek modernitatea eta naturaltasuna uztartzen dituzte, eta etxea ez da estetikoa soilik, baizik eta bizigarria ere bihurtzen da.

Argiztapena: giroaren gakoia

Dekorazio modernoan argiak protagonismo handia du. Ez da argi bakarria erabiltzen: geruzatutako argiztapena da joera. Argi epelak, puntuko argiak eta giro-argiak konbinatzeak espazioa sakonago eta atseginago bihurtzen du.

Modernoia ez da hotza izan behar

Dekorazio modernoaren sekretua orekan dago: sinpletasuna bai, baina nortasuna ere bai. Etxeak ez du katalogo baten kopia izan behar, baizik eta bertan bizi den pertsonaren isla.



Horregatik, gaur egungo modernitatea ez da hutsala: funtzionala, beroa eta pertsonala da.

Bainu modernoetan zuriak, beixak eta gris leunak dira oinarri, baina egurrak eta harrizko testurek beroa ematen diote espazioari. Helburua argia da: bainua ez izatea funtzionala soilik, baizik eta atsedean hartzeko lekua ere bai. Duxta eremuak gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira. "Walk-in shower" edo beirazko itxiturak dituzten dutxak dira joera nagusietako bat.

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxe: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

“Aspaldiko gertaerak distortsionatuak iristen dira gure begibelarrietara”

JOSEBA TAPIA • Musikaria



Asteburu honetan hasiko dira 61. Euskal Jaiaren ospakizunak. Eibarko Klub Deportiboak, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean, hainbat ekintza antolatu ditu hemendik hilabete amaieraraino: hitzaldiak, solasaldiak eta, nola ez, musika eta dantzaldiak.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Aurtengo edizioan, domekan egin ohi izan den dantzaldia zapatuan egingo da eta aurtengoan maila goreneko musikariak izango ditugu dantzak girotzeko. Izan ere, Arkaitz Miner, Quico Puges eta Iraide Ansorena izango dira musika jotzen, gehienentzat oso ezaguna den artista batekin: Joseba Tapia. Hain zuzen ere, Larsate-Oriako musikariak 2001. urtean kaleratutako ‘Agur Intxorta Maite’ diskoko kantak joko dituzte, Eibarko bonbardaketen 90. urteurrenean, memoria historikoari keinu eginez. Dantzan, ostera, Kezka, Haritz, Gure-Kai, Gorosarri eta Txindurri dantza taldeak arituko dira.

Euskal Jaiko dantzaldian musika egiten arituko zara Arkaitz Miner, Quico Puges eta Iraide Ansorenarekin. Nolako elkarlana sortu da lauren artean? Nolako da konexioa?

Urte askotan aritu naiz Arkaitzekin, bai erromerietan bai kontzertuetan. Nire bakarkako disko askotan parte hartu izan du, eta Tapia eta Leturiarekin hamar urtez elkarrekin aritu gara. Ondo ezagutzen dugu elkar. Quico ere ezaguna dut; ‘Tximela kapitaina’ jo izan dugu elkarrekin. Iraiderrekin ez naiz sekula ari-

tu, baina askotan entzun dut bere izena. Gogoia dut oholtza gainean ezagutzeko.

Antolatzaileek aurreratu digute Intxortako diskoko kantak joko dituzuela. Nolako kantak dira? Nola egokitu dituzue Euskal Jaiko dantzaldian jotzeko?

Kasu honetan dantzariak egokitu dira gurera. Guk diskoan agertzen diren oso antzera kantatuko ditugu kantuak. Ikusiko dugu nola moldatzen diren dantzariak. Kantu hauek dantzatzekeo ideia ez da oraingoa, baina lehen aldia hau izango dela esango nuke. Kantuak oso dantzarriak dira halabeharrez. Doinua jarri nienean Elgeta nuen gogoan (Jacinto Rivas Sanz). Dueson preso hartu zuten 1937an eta bizi guztirako kartzela eman zioten. Duesotik Puerto de Santa Mariara eraman zuten. Handik bizirik irten zen eta soinu jotzen segitu zuen. Hark erakutsi zion nire osaba Eleuterioari soinu jotzen. Gero osabak niri erakutsi zizkidan hark erakutsitakoak. Dantza haien usainean sortutako doinuak dira.

Antolatzaileek esan digute memoria historikoari keinu egin nahi izan dela. Zergatik izan daiteke garrantzitsua gaur egun memoria historikoa musikaren bidez lantzea?

Ahaztu egiten direlako gertatutako ankerkeriak az-



Joseba Tapiaren 'Agur Intxorta Maite' diska hartuko dute ardatz Euskal Jaiko dantzaldirako. MITXELENA (DIARIO VASCO)

kenerako eta gogorarazteko modu bat izan liteke. Belaunaldi berrientzat oso urruneko kontuak izan litezke eta komeni da haiek ere jakin dezaten hemen zer nolako bidegabekeriak gertatu ziren.

Euskal Herrian askotan kantatu izan dira gudari, erbeste edo memoriarekin lotutako piezak. Sentitzen duzu belaunaldi berriek oraindik lotura dutela kanta horiekin?

Ezetz esango nuke eta ez da harritzekoa. Teknologia modernoak eduki arren, ez gara datorren informazio uholdeari aurre egiteko gai, eta badakigu gezurra eta egia nola nahasten dituzten pantailetan. Kultura transmisio animalia dago, baina ez da guk nahiko genukeen bezalakoa. Aspaldiko gertaerak distortsionatuak iristen dira gure begi-belarrietara. Hiztegia bera ere bahitua daukate. Orain "askatasuna" hitza erabiltzen dute, hura kendu nahi dutenek. Jendea engainatzea erraza dago gainera. Erruki zakizkit...

Zure ibilbidean tradizioa eta berrikuntza sarri uztartu dituzu. Oreka hori naturalki ateratzen zaizu ala etengabeko bilaketa da?

Niri tradizioa asko gustatzen zait eta inspirazio iturri

da, baina tradizioa berritzea ere garrantzitsua dela iruditzen zait. Ezin gara XVI. mendean bizi beti. Gaurko munduak ikuspegi berri bat eskatzen du, egokitze bat. Sortzen ez duen herri bat ez da inoiz biziko. Sortzeak askotan zikintzea esan nahi du. Zikindu ditzagun gure zapatak beldurrik gabe...

Gaur egungo euskal folk edo herri musikaren panoramari begiratuta, non ikusten duzu indarra? Eta zer sumatzen duzu faltan?

Gazteengan ikusten dut indarra, irudimena, bizitzeko gogo... Gauza horiek konfiantza ematen didate. Enpresari handiak eta bankuek ematen didate beldurra. Hortik ez dator ezer onik. Horrela, sinplean esanik, hortxe bi muturrak.

Urte asko daramatzazu musikan eta, modu batean esatearren, inoiz baino freskoago ikusten zaitugu. Zerk eusten zaitu?

Oraindik maitemindua nago musikarekin eta edertasunarekin. Gustatu egiten zait nire ofizioa. Kantua eta musika dira nire mundu aldrebes honi eskaini diezaiokean onena gainera. Jendea dantzan, kantuan eta gozatzen ikusteak ez dauka preziorik.



Biba Zuek saioan “Nirekin hasi euskaraz” kanpaina izango dute hizpide

M.A. Datorren astelehenean, maiatzak 25, ...eta kitto! Euskara Elkarteak martxan duen “Nirekin hasi euskaraz” kanpainari tartea eskainiko diote ETB1-eko Biba Zuek saioan. Maddalen Arzallusek eta Xabier Sukiak aurkezten duten programan ...eta kitto!-ko Ane Lizarralde izango da kanpainaren berri ematen. Astelehenean ibilbidearen erdia egin izango du ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzea helburu duen kanpainak eta bigarren astea nola aurreikusten den eta orain artekoa nola joan den azalduko du Anek, beste kontu batzuekin batera. Saioa 18:00etatik 20:00etara emititzen da zuzenean.



Reincidentes eta Def Con Dos arituko dira Amañako jaietan

S.H. Aurten Reincidentes eta Def Con Dos taldeek eskainiko dituzte kontzertuak Amañako jaietan. Uztailearen 3an, ostirala, igoko dira eszenatokira, eta publikoari burua astintzeko aukera emango diote metal, rap, hip-hop, punk eta rock doinuekin. Reincidentes taldearentzat ez da lehen aldia izango Amañan, 2022an jo baitzuen bertan. Andaluziako taldea 1987. urtean sortu zen eta Euskal Herrian oso publiko fidela izan du beti. Def Con Dos talde madrildarrak ere 80. hamarkadan ikusi zuen argia. Rap-metal taldea izan arren, beste hainbat eremutan ere mugitzen da.



Haki del Rey oilar-borroka lehiaketa jokatu da bihar

S.H. Bihar (zapatua, maiatzak 23) Txaltxa Zelai berriz ere *freestyle* rap musikarako agertoki bilakatuko da, *El Haki del Rey* lehiaketaren seigarren edizioarekin. Ekitaldia 17:00etan hasiko da, kanporaketa faseekin, eta estatu mailako hainbat artista ezagun bilduko ditu. Sweet Pain izango da kartel-buru. Sevillako raperoa teknika, abiadura mental eta inprobisaziorako gaitasunagatik da ezaguna, eta Espainiako *freestyle* zirkuituko izen nabarmenetako bat bihurtu da. Harekin batera arituko da Espainia mailako talentu handienetako bat den Tuko, 12 urteko *freestyler* gaztea. Haiekin batera beste bi artista ezagun, Ander 2k eta Harko arituko dira biharko saioan. Gainera, iazko edizioan ikus-entzuleen artean oso harrera ona izan zuen Jarko ere lehiatuko da.

Ohiko formatuari eutsiko diote: banakako “lehia” edo aurrez aurreko errimak izango dira, eta parte-hartzaileek momentuan bertan sortu beharko dituzte euren bertsoak, musika base eta gai ezberdinen gainean. Antolatzaileek herritar guztiak bertara gonbidatu dituzte, “zuzeneko *freestyle*-az gozatzeko”.

‘Maracuda’ filma euskaraz eta deskontuarekin ikusi ahalko da

S.H. Euskarazko zinemaz gozatzeko aukera izango da asteburu honetan Coliseon, haur eta familientzako proposa den *Maracuda* pelikula emango dute eta. Gainera, sustapeneko filma denez, 17:00etako saioetarako sarrrerak 1,5 euroko deskontua izango du.





‘Oteiza: Apostoluak dantzan’ saioa domekan Portalean

S.H. Zinema eta dantza uztartuko ditu *Oteiza: Apostoluak dantzan* izeneko saioak domekan, maiatzaren 24an, Portalean. Jorge Oteizaren unibertso artistikoa ardatz duen ekimenak Oskar Alegriaren film baten proiektzioa eta Argia euskal dantzari taldearen emanaldia batuko ditu. Ekitaldia Dantzan elkarteak antolatatu du, Gipuzkoako Dantzagunearen *Dantzan Ikasi* programaren barruan, eta Eibarko Klub Deportiboak antolatutako 61. Euskal Jaiaren egitarauan kokatzen da.

Saioa 18:00etan hasiko da, *Oteiza 14 apostolu* (2025, 45') filmarekin. Proiektzioaren ostean, zuzendaria bera eta *Danok Oteiza* egitasmoko Jaione Apalategi arituko dira solasean ikus-entzuleekin. Eta 19:30ean, Argia taldeak *Apostoluen soka-dantza* eskainiko du (areto nagusian). Juan Antonio Urbeltzen eta Marian Arregiren sorkuntzan oinarritutako pieza honek azken afariaren inguruko iruditeria dantzara ekartzen du, euskal tradizioaren eta errituaren ikuspegitik. Emanaldia eta gero, Urbeltzek berak hartuko du parte, solasaldi batean.

Estudioko argazkiak doan aterako dituzte zapatuan Untzagan

S.H. Argazkilaritza *Maia-tzean* ekimenaren baitan, bihar zapatua (hilak 23) Argazki Topaketak egingo dira Untzagan, 17:00etatik 19:00etara. Deporrek argazkilariek azaldu digutenez, “argazki estudioa kaleratuko dugu, nahi duenari argazkia debalde egiteko. Argazki guztiak Fotoprix dendan eskuragai izango dira, maiatzaren 26tik aurrera”.




Txistu kontzertu berezia Euskal Jaiaren baitan

S.H. Domekan (maiatzak 24) txistu kontzertua eskainiko dute Untzagan, udaletxeko arkupeetan, 12:45ean. Ikasturte amaierako emanaldi gisa, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako txistu ikasleak arituko dira Usartza Txistulari Taldearekin batera, eta soinu, metal eta perkusio instrumentuak izango dituzte lagun emanaldian, Marisol Arrillaga, Danel Montero, Unai Cabanzon, Iñaki Orbegozo eta Pablo Zubiaurteren eskutik.

2026ko Euskal Jaiaren programazioan txertatutako kontzertua berezia izango da: “Soinu-memoria partekatuen ibilbide modukoa izango da, Euskal Herrira nahiz Europako beste herri batzuetara, belaunaldiz belaunaldi lagundu duten erritmo eta dantzetan barrena egindako bidaia”. Errepertorioak estilo ugari bilduko ditu: mazurkak, polkak, minuetoak eta kontrapasak, jotak, fandangoak eta arin-arinak, zortzikoak, habanarak, euskal dantza tradizionalak eta doinu herrikoiak. Gainera, publikoaren konplizitatea bilatuko dute, eta doinu ezagunenak abestera gonbidatuko dituzte bertaratutakoak.

Zabalik dago UEU-ren Udako Ikastaroetarako matrikulazioa

S.H. Udako Euskal Unibertsitateak 54. Udako Ikastaroak aurkeztu ditu: Ekainaren 11tik uztailaren 10era bitartean 23 jardunaldi egingo dira, Iruñean, Eibarren, Baionan, Tolosan, Usurbilen, Bilbon, Gasteizen eta Errenterian. Matrikula guztiek 12 euro balioko dute, eta da-goeneko izena eman daiteke, UEUren webgunean (www.ueu.eus).



ERRAZA

8	2		7	4	
		8	9		5
		2	1		8
8			9	4	
	5		7		
6	4				1
4		9	5		
	7	6	2		
	9	4		2	7

SUDOKUA

7									
6	5	9	4	1	8	2	3	7	
4	6	5	2	9	7	8	1	3	
1	8	3	9	7	6	2	4	5	
5	1	8	4	7	9	3	6	1	
9	3	5	1	8	4	7	2	6	
7	8	1	5	2	9	6	3	4	
8	3	4	7	2	4	1	3	7	
5	6	9	6	9	7	8	1	5	
2	4	7	6	1	9	5	2	3	
6	9	4	6	9	7	4	8	1	


6	8	9	5	3	2	4	1	7
3	4	5	9	1	7	2	2	4
2	7	1	6	4	8	3	5	9
4	2	8	1	7	6	5	9	3
7	1	3	4	5	9	6	8	2
6	6	2	9	7	6	5	8	3
7	1	3	4	5	9	6	8	2
6	6	2	9	7	6	5	8	3
1	6	2	3	9	5	7	4	8
8	3	4	7	6	1	9	2	5
5	9	7	2	8	4	6	3	1

ZAILA

		3	4				9		
					9	5		4	8
9			8	2		1			
	1						6		
		8		7	6				3
2	7		6	4					
		5					2	8	

LABIRINTOA

Lagundu katuari irteera aurkitzen



Maiatzak 22 - Maiatzak 28

BARIXAKUA 22

ALTXORRAREN BILA

17:30 Altxorraren Bila, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Errebal Plaza.

61. EUSKAL JAIA

18:45 "Eskailarapekoa" bakarrizketa, Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren eskutik. Eibarren Akebairekin batera antolatuta. Depor parean.

OMENALDIA

19:00 Jon Gorrotxategi eta Mikel Oyarzabal futbolari Eibarko Udalaren aitor-tza. Herrera, Untzagan, eta gero udaletxeko balkoira irtingo dira.

KOMEDIA FEST

20:30 "El Regrueso de Paptxi", Gorka Aguinagaldere eskutik. 22 euro. Coliseo.

ZAPATUA 23

PALA-TXAPELKETA

09:00 Eibarko Pala Txapelketaren finalerdiak. Astelena frontoia.

BIDEZKO MERKATARITZA AZOKA

10.00/14.00 Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguneko azoka, Egoaizia, Aldatze, La Salle eta Proyde-Proega GGKEek antolatuta. Haurrentzako gunea (jolasak, eskulanak...), Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta postua, produktuen dastaketa, otarren zozketa... Eibarko Bizikleta Plaza.

ROL-JOKOEN JARDUNALDIA

10:00-14:00 / 16:00-20:00 "Heroes de grafito" rol-joko jardunaldia, Odisea elkartearen eskutik. Errebal Plaza.

SASKIBALOI EGUNA

10:00 etatik aurrera, lau kanasta, jokatzeko: 3vs3 lehiaketa, triple lehiaketa, gaitasun proba, saskibaloia probatzeko aukera... Gainera, taberna eta denda, KIA etxeko kotxe bat probatzeko aukera, eta jokalarientzat oparia, Lacturale-ren eskutik. Untzaga.

KLOWN TAILERRA

10:00/14:00 Klown tailerra, helduentzat 3 orduko ikastaroa + ordubete berezia. Ipuruako Merkatu Plaza.

RONIN 10. URTEURRENA

11:00 Ronin Fight Club-aren 10. Urteurren Eguna: boxeo, kickboxing, MMA eta jiu-jitsu ikuskizuna, Ronin-eko kideen eskutik. Urkizu. **17:00** "Pintxada", Lekua zehazteko. **22:00** Kontzertuak Lee-Kore, Ronkoi!, Amildegi eta Espal-oi!. 5 euro. Lekua zehazteko.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

17:00/19:00 Topaketak Kallean. Argazki-estudioa kallean. Argazkiak dohainik. Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatuta. Untzaga.

BISITA GIDATUA

17:00 Eibarko Armagintzaren Museoko erakusketa iraunkorrera bisita gidatua, euskaraz (18:30ean gaztelaniaz). Doan. Armagintzaren Museoa.

OILAR-BORROKA

17:30 Haki del Rey. Izenematea doan. Txaltxa-Zelai (kioskoa).

61. EUSKAL JAIA

19:00 Bakarrizketa: Lander Varona, Beñat Iturbe eta Jone Bengoa eibartarra. Klub Deportiboa. 20:00 Kontzertuak: Ur eta Mixe-rabliak. Depor parean.

DOMEKA 24

BISITA GIDATUA

11:00/14:00 Gerra Zibileko gerra-frontearen ibilbide historikoa. Euskaraz. Arrate (Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa).

MUSIKA

12:45 Txistu kontzertua, 61. Euskal Jaiaren egitarauaren baitan. Usartza Txistulari Taldea, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako txistu ikasleak, soinua, metalak eta perkusioa. Untzaga (udaletxeko arkupeak).



61. EUSKAL JAIA

18:00 "Oteiza 14 apostolu" filmaren proiektzioa, aurkezpena eta kolokioa. Portalea. **19:30** "Apostoluen sokadantza", Juan Antonio Urbeltzekin. Dantzan elkartearekin batera antolatuta.

MARTITZENA 26

HERRITU

18:30/19:30 Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

EGUAZTENA 27

DANBORRADA

19:15 Sanjuanetako danborradarako entsegua (haurrak). **20:15** Helduen entsegua. Errebal Plaza (eraikin barruko lokaletan).

EUSKAL JAIA

19:00/21:00 Larrain-dantza errepasoa. 5 euro (Arrate Kultur Elkarteko bazkideek dohainik). Arrateko Andra Mari ikastetxea.

EGUENA 28

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

61. EUSKAL JAIA


19:00 "Esnatu ala hil" hitzaldia, Garikoitz Goikoetxearekin. Eibarren Akebairekin batera antolatuta. Klub Deportiboa.

FRAKUSKETAK

Maiatzaren 31ra arte

Argazkilaritza Maiatzean Eugenio Fieni-ren "Nenet herria. Bizitza Artikoan"; Jaime de Prado; Angel J. Sanchez-en "Babel"; eta Argizaiola. Portalea. SFG Trofeo Gipuzkoa. Topaleku. Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistain: "Tenerife". Portalea taberna.

ZINEA COLISEO



"Hugo 24"
DRAMA

2026/Espainia/91'
Zuzendaria: Luc Knowles
Aktoreak: Arón Piper, Marco Cáceres, Marta Etura.
Gizarte drama

1 ARETOA

- **23an:** 17:00, 19:45
- **24an:** 17:00

ANTZOKIA

- **23an:** 22:30
- **24an:** 20:00

2 ARETOA

- **25ean:** 20:30



"Iron maiden. Burning ambition"
DOKUMENTALA

2026/AEB/106'
Zuzendaria: Malcolm Venville
Aktoreak: Iron Maiden.
Musika dokumentala

1 ARETOA

- **23an:** 22:30
- **24an:** 20:00
- **25ean:** 20:30



"La chica del coro"
AKZIOA. THRILLERRA

2025/Eslovenia/89'
Zuzendaria: Urška Djukić
Aktoreak: Jara Sofija Ostan, Mina Svajger, Saša Tabaković.
Erljioa. Nerabearoa. Sexualitatea eta pornografia

2 ARETOA

- **23an:** 19:45, 22:30
- **24an:** 20:00



"Las ovejas detectives"
KOMEDIA

2026/Erresuma Batua/109'
Zuzendaria: Kyle Balda
Aktoreak: Hugh Jackman, Emma Thompson, Nicholas Braun
Animaliak. Krimena

ANTZOKIA

- **23an:** 17:00, 19:45
- **24an:** 17:00



"Maracuda"
ANIMAZIOA. ABENTURAK

2025/Errusia/90'
Zuzendaria: Viktor Glukhushin
Aktoreak: Prokhor Chekhovskoy, Pyotr Ivashchenko, Marina Lisovets.
Historiaurrea. Familia zinema

2 ARETOA

- **23an:** 17:00
- **24an:** 17:00

FUNEUSKADI
Grupo Asistia

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeuskadi

TANATORIO CREMATÓRIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Antxon Lopez Usoz

1. URTEURRENA
2025/05/22

Beti egongo zara gurekin.
Maite zaitugu.

—ETXEKOAK—

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **AIORA!** Gaur, maiatzak 22, 7 urte bete dozuz eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak **JOL!** 13 urte bete zendua-zen atzo, hillak 21. Besarkada haundi bat amama Edurne eta aittita Josuren partez.



Zorionak **ELENE!** Musu haundi-haundi bat etxekuen partez.



Zorionak **MAIALEN!** Atzo 6 urte bete zenduaz eta. Besarkada erral-doia famelixa guztixan partez.



Zorionak **ANAITZ,** gure etxeko txikixa, astelehenian 8 urte beteko dozuz eta. Famelixaren eta, batez be, Unaxen partez.



Zorionak **LUKAS** Unanue Thobie! Jaunartzea zapa-tuan eta urtebetet-zea martitzenian eginak! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak **MANEX!** Bihar 5 urte beteko dozuz eta. Asko maite zaittugu!



Zorionak **CLAUDIA!** Gaur 14 urte! Jarraitu horren alai eta dantzari. Pilla bat maite zaittugu. Etxekuak.



Zorionak **MARA!** Eguaztenian 10 urte bete zenduaz; segi orain arte bezain alai eta dibertigarri izaten. Musu potolo bat famelixaren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak **AITANA!** Bixar, maiatzak 23, 7. urte beteko dozuz eta. Famelixa guztixaren eta, batez be, Markel anaia eta Maialen lehengusiñaren partez.



ITZIAR (maiatzaren 25ian 12 urte) eta **LAIA** (maiatzaren 27an 9 urte) Lapeyra. Zorionak poxpoliñak, zuek zarie etxeko erregiñak! Asko maitte zaittuztegu. Ama, aitta eta Oier.



Zorionak **MARKEL** (6 urte) eta **AITOR** (49 urte)! Besarkada haundi bat famelixa guztixaren partez. Asko maite zaittuegu.

Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Benidorm. Udarako zein negurako etxebizitza alokatzen da. Gutxienez 15 eguneko egonaldiak. Hondartzatik eta erdigunetik gertu. Kanpoko nahiz barruko igerilekua. Gara-jea barne. Aukera ezberdinak aztertzen dira. Informazio gehiago: 667244733.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Juan Gisasola kalean, probaderoaren azpian. 686633523.

4. LANA

4.1 Lan bila

- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko, pertsonak zaintzeko edota tabernan lan egiteko. 631020887.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Ziurtagiri soziosanitarioa. 633597550.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka, ospitale edota etxeetan. Baita garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Asteburuetan ere. 688740201 (Gloria)
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko edota gabaz nagusiak zaintzeko. 613314603.

- Emakumea eskaintzen da etxe-ko lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita garbiketa lanetarako eta umeak zaintzeko ere. 614671434.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Berehala lan egiteko prest. 633101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko, baita asteburuetan ere. Berehala lan egiteko prest. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da etxe-ko lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita garbiketa lanetarako ere. 688 74 02 01.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota etxeko lanetan jarduteko. 642852854.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 614339369.

4.2. Langile bila

- Emakume behar da pertsona nagusi bat gauetan zaindu eta laguntzeko, paperak eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. Esperientzia baloratuko da. 618156833.
- Fisioterapeuta eta estetiziena behar da Eibarko ileapaindegi batean. 943208125.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Behin erabilitako Magasa emakumezko baserriar jantzia salgai prezio erdian. 14 neurria. 658714437

 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES ERREALITATEA DA



3 logelako etxebizitzak

Bisitatu pisu pilotua

eta estreinatu etxebizitza hilabete honetan bertan

Gourmet aretoa
Gimnasioa

APARKALEKUAK
ESKURAGARRI

900 11 00 22 • neinorhomes.com

zarelakopara

Zure pausoak indartzen
du euskararen bidea.
Batu zaitez eta egin dezagun Eibar
euskaldunagoa.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

BAZKIDETZA KUOTAK (URTEKO)

- Umeak (16 urtetik behera): urtean 5€
- Ikasle, langabetu eta jubilatua: urtean 20€
- Langileak: urtean 50€

*Errenta aitortpenean %30 itzuliko zaizu

Info+: 943200918 / elkartea@etakitto.eus

 **eta kitto!**
euskara elkartea



EIBAR

Udala | Ayuntamiento

EIBARKO MUSIKA ESKOLA

4 urtetik aurrera, adin mugarik gabe

2026-2027

MATRIKULA BERRITZEA

Maiatzaren 13tik 22ra

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Ekainaren 1etik 19ra

Musika eta Mugimendua 4, 5 eta 6 urtekoentzat

Instrumentuak Musika Taldeak

Koruak Musika Hizkuntza Musikoterapia

Musika Hizkuntza gazte eta helduentzat

Musika Tailerra +65 urtekoentzat

musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus

943702725